

# æk 22.korrika

## HITZELAN HITZEKIN

### Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

#### MEZUA

## HITZELAN HITZEKIN

Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktikara, jauzi egingo dutenak.

Beraz, ohar zaitez badugunaz, bagarenaz eta izango garenaz. Hitza emana duzu; orain, egin jauzi ekintzara. Euskara ahoan izan behar dugu herritarrok, elkarteek, erakundeek... Bada ekiteko ordua.

Hitz egiteko ordua. Hortaz, ernatu, larrialdi linguistikoaren alarma gorriak pizten hasiak dira. Ekin diezaiozun berehala: aldekatasunetik konpromisora, eta konpromisotik erakunde orok urrats sendoagoak egin ditzan eragitera, jendartearen nahiei eta beharrei erantzuteko.

Ezinbestekoa da partida hau irabaztea. Ekiteko ordua da, orain bukatu behar da tantoa, orain irabazi behar da norgehiagoka, 22. KORRIKARA batzeko unea da. Eginez eragingo dugu eta eginaraziko diogu elkarri, ikasle, agintari zein eragile orok, guztiok elkarrekin.

**Zerekin? Hitzekin, Hitzarekin eta Ekinarekin.**

**Hitzek hizkuntza, ekinak herria.**  
**Hitzekin ulertzen dugu hizkuntza.**  
**Beraz, ekin! Euskaraz egin.**  
**Hitzetik ekintzara salto, hitz egin eta ekin.**  
**Orain da 22. tantoa egiteko unea, partida irabazi behar da euskaraz eginez, eraginez eta eginaraziz, nork bere tokitik eta eginbeharretik ekinez.**

**Ikasle, ekin;**  
**euskaldun, ekin;**  
**erdaldun, ekin;**  
**eragile, ekin;**  
**agintari, ekin;**  
**ekin ELKARREKIN.**

**Gantxoz, bi paretaz zein botez, baliabide anitzekin, eta guztiok hitza emanez.**  
**Ekin, eragin eta eginarazi.**  
**Ekin KORRIKARI**

# æk 22.korrika

### Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

korrika.eus



**ARABA**  
Arana kalea 30, behea  
01002 GASTEIZ  
946 464 000  
araba@korrika.eus

**BIZKAIA**  
Txakur kalea 1, 4.a  
48005 BILBO  
946 464 000  
bizkaia@korrika.eus

**GIPUZKOA**  
Iztueta kalea 3, behea  
20001 DONOSTIA  
946 464 000  
gipuzkoa@korrika.eus

**IPARRALDEA**  
Marengo Karrika, 22  
64100 BAIONA  
05 59 25 76 09  
iparraldea@korrika.eus

**NAFARROA**  
Errekoleten kalea 16, behea  
31001 IRUÑEA  
946 464 000  
nafarroa@korrika.eus



## ZER DA KORRIKA?

KORRIKA Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen KORRIKA antolatutako zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordudanik, 21 KORRIKA eta 41 urte igaro dira. 2022ko martxoaren 31n hasita, 11 egunez eta gelditu gabe, KORRIKAK Euskal Herria zeharkatuko du 22. aldiz. Bi mila kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka partaiderekin, gau eta egun gelditu gabe.

KORRIKA hasi eta amaitu arte, lekukoa eskuz esku eta kilometroz kilometro eramaten dute korrikalariak; lekuko horren barruan, euskaldun ezagun batek KORRIKA helmugara iristean irakurriko duen mezua gordetzen da, ordura arte sekretupean gordetzen dena.

Ehunka mila lagunek hartu dute parte aurreko KORRIKA edizioetan. Ekimenaren inguruan sortzen den mugimenduak Euskal Herriko jendarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egindako hautua erakusten du. KORRIKA bi urterik behin Euskal Herriko jendarte astintzen duen gertakari bilakatu da. Bertan parte hartzen duen jende-kopuruak gora egiten du etengabe, KORRIKAREN antolaketa milaka lagun aritzen dira herriz herri eta auzoz auzo eraturako batzordeetan, eta kanpainak irauten duen bitartean, hil batzuk lehenago aurkezten denetik azken eguneko jaia egin arte, ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatuta ohi dira.



## ZER DA AEK?

AEK-k antolatzen du KORRIKA. Euskararen berreskurapena eta Euskal Herria berreskalduntzea dira erakundearen xedeak: euskara normaltasunez eta egunerokoan erabiliko duen jendarte eraikitzea, hain zuzen. Hori lortzeko, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea nahiz hizkuntzaren erabileraren alorrak jorratzen ditu: euskara-eskolak, ikerkuntza, material didaktikoen sorkuntza, irakasleak prestatzeko ikastaroak, kultur ekitaldien antolakuntza, euskara erabiltzeko praktika-jarduerak, lantegi eta erakunde normalizazio-planen diseinua eta kudeaketa, itzulpengintza- eta zuzenketa-zerbitzua eta euskararen aldeko kontzientziazte-kanpainak.

Lehen alfabetatze-taldeak 1965 inguruan sortu ziren, eta urte hartan antolatuta zen lehen kanpaina. Alfabetatze-taldeak Euskal Herri osoan sortzen ziren neurrian, agerian geratu zen euskaraz ez zekien euskal herritar multzo handi horri euskara irakasteko beharra. Horixe izan da AEKren urteotako zeregin nagusia. Halaxe sortu ziren, Euskaltzaindiak bultzatuta eta babestuta, gau- eskolak lehenengo eta euskaltegiak ondoren.

Gaur egun, AEK dugu helduen euskalduntze-alfabetatzearen aritzen den elkarterik garrantzitsuenak, eta, administrazio-banaketen gaineratik, Euskal Herri osoan lan egiten duen bakarra. Horretarako, baditu 500 kide baino gehiago euskara-eskolak ematen, 100 euskaltegi eta gau-eskola baino gehiagotan banatuta, normalizazio-planak bideratzen laguntzeko zerbitzua, erabilera bultzatzeko programak, itzulpen- eta

zuzenketa-zerbitzua eta AIZU! aldizkaria, besteak beste.

Aurreko KORRIKA amaitu zenetik, ohi baino denbora gehiago igaro da: urtebete luze-luzea, eta ez nolana hain. Denbora-tarte horretan euskararen alde lanean segitu duen jendearen gogoa nabarmendu nahi dugu: etxean euskara ikasten segitu duten milaka herritarrak, euskaltegietan iaz ibilitako ikasleak, irakasle ahalegina eta kemena, eta, nola ez, iazko udaberrian KORRIKA egin behar genuen sasoi antolatutako "Bultza Euskaltegiak, Bultza Euskara" ekimenari babesa eman zioten eragile zein norbanakoak. Egoera larria izanagatik, aurreko KORRIKAKO KLIIKA deiari kasu eginda, jendarteak ez du euskara bazter utzi nahi izan, eta, erakutsitako indar horri esker, euskaraz bizitzeko hautua inoiz baino irmoagoa da eta herritar gehiago hurbiltzen ari dira euskaltegietara. Administrazioari dagokionez, euskaltegiei bideratutako baliabideak oraindik ez dira nahikoak. EAEn, irakasle lan-baldintzak normalizatzeko urrats handia egiten ari da, baina ikasteko doakotasunean, adibidez, badago zer hobetu oraindik; Ipar Euskal Herrian, laguntzak handitu egin dira, bai, baina ez helduen euskalduntzeak behar lukeen beste; eta Nafarroan, azken urteotan, pauso txikiak eman dira, ez nahikoak oraino, eta jauzi handiagoen premia dugu. Hala, ezinbestekoa da Euskal Herri osoan nahitaezkoa duen helduen euskalduntzea bizkortzea eta inbertsioak areagotzea. Hori dela eta, 22. KORRIKAK jasoko duen dirua Euskal Herri osoko bere euskaltegiei laguntzeko baliatuko du AEK-k.

## NOLA HARTU PARTE?

### Antolaketa arituz:

Zure herrian edo auzoan eratuko den KORRIKA batzordean parte hartuz.

### Diruz lagunduz:

- KORRIKA laguntzaile izanez eta 22. KORRIKAKO materiala erosiz.
- KORRIKALARIEN peto edo bizkarrekoa erosiz, aurretiaz, AEKren edozein euskaltegitan zein KORRIKA dendetan, edo KORRIKA igarotzen den egunean bertan.
- Herriz herri egingo den KORRIKAREN aldeko diru-bilketan lagunduz.
- KORRIKAREN izenean Laboral Kutxan zabalduko kontu korrantean nahi den ekarpena eginez (E570 3035 0072 02 0720037810).
- BIZUM bidez ekarpena eginez.
- Lekuko familiarekin, elkartekideekin, lagunekin... eramanez eta ekarpena eginez.

### KORRIKAREN berri emanez eta haren ospea hedatuz:

- KORRIKAREN webgunea bisitatuz (www.KORRIKA.eus) eta KORRIKAREN aldeko sare sozialetan parte hartuz.
- KORRIKA Kulturalak antolatuko dituen ekitaldietan parte hartuz.

### KORRIKAN bertan parte hartuz:

- 22. KORRIKAREN hasieran eta amaieran parte hartuz: zatoz Amurriora martxoaren 31n eta Donostiara apirilaren 10ean!
- Bizkarrekoa jantzita korrika eginez; euskara ikasi, hitz egin eta euskaraz bizi nahi dugula erakusteko.

### Enpresa eta saltegiek:

- KORRIKA iragartzeko euskarriak babestuz.
- KORRIKALARIA eskuratuz zein KORRIKA lagun izanez.
- Kilometroak eskuratuz. Parte hartzeko modu hau erabili nahi dutenek KORRIKAREN bulegoetara jo dezakete.

